



BALIO PROPOSAMENA

Gure produktuaren helburu nagusia **gazteen egunerokotasuna erraztea** da. Horretarako, edozein mugikorretan **dohainik** eskuragarri egongo den aplikazio bat sortuko dugu, nolabaiteko sare sozial bat.

Are gehiago, gure produktuak gaur egungo sare sozial toxikoetatik urrunduz beste mota bateko **entretanimendu** bat sortu nahi du. Era berean, ikasketetarako ere onuragarria izan dadin. Gazteek argazkiak, apunteak eta beren lanak partekatzeko aukera izango dute, baita jende berria ezagutzeko aukera ere.



WIXUREN HELBURUAK

Beraz, gure helburua sare sozial **jasangarri** bat sortzeaz gain, gazteei laguntzea eta bizitzako esparru desberdinen inguruan interesa piztea da.

Gazteen egunerokotasunean oinarrituta dagoenez, lau ataletan zatituta egongo da;

- Modako atala
- Ikasketen atala
- Salerosketen atala
- Gomendioen atala

Gainera, enpresentzako ere zeharo **onuragarria** izango da; haien stock-ak saltzeko aukera emango baitu salerosketa atalak.